

## BEJONDEIZUELA NATURAZALEOI!!!

**E**kaitz, Pisbeko Auzo Elkarte, Altamirako Auzo Elkarte, Txerrimuño eta Oroitzene AEK euskaltegiak papera biltzeko eratu duten kanpainan parte hartzen ari zareten guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu arrakastaren berri emateaz bat.

Aldi berean zenbait gauza gogorarazi nahi ditugu:

- \* Ekaitzen astearte eta larunbatetan jasotzen dugu.
- \* Oroitzene AEK euskaltegian astelehentik ostiralera.
- \* Txerrimuñon egunero.
- \* Pisben auzo elkartearen ondoan utzi.
- \* Altamirako auzo elkartean egunero.

— Ahal baduzue, papera kartoizko kaxetan edo enpaketatua ekartzea komenigarria litzateke, dagoeneko ez baitakigu plastikozko boltsekin zer egin.

— Papera edo kartoia den guzia birzikla daiteke, ez ordea, metala ere baduten «tetra brick»-ak.

Guztientzat komenigarria den kanpaina honetan, jarraituko duzula espero dugu eta bestela ikus zure jarrerak zer eragin ona izan duen, 7.400 kilo bildu baitira guztira.



*Zaborra edozein lekutan botatzea geure buruari harrika egitea da.*

Urtarrilak 21.....	1.510 K.
Otsailak 11.....	900 K.
Martxoak 4.....	1.690 K.
Martxoak 25.....	1.520 K.
Apirilak 8.....	1.780 K.
	<hr/>
	<b>7.400 k.</b>

**SEGI NATURA ZAINTZEN ETA LAGUNTZEN!!!**

**Ekaitz, Pisbe, Altamira, Txerrimuño eta Oroitzene AEK euskaltegia**